

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xabier Goenaga Barrena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Ziburun jaio zen, gerran gurasoak hara joan zirelako. Hiru urte zituenean bueltatu ziren Donostiara. Urbietan kalean bizi izan zen umetan, Amara auzoan. Gurasoak biak zituen donostiarrak (ama Añorgan bizi izandakoa eta aita erdialdekoa). Bost senidetan zaharrena zen Xabier. Fraide corazonisten ikastetxean ibili zen 17 urte bete arte, erdara hutsean ikasten. Eta aita arotza zen arren, ez zuen haren bidea jarraitu: aparejadore ikasi zuen, Madrilen eta Bartzelonan. Horretan jardun zuen gero, Donostiako Udalean oposaketak aterata. Jarrai antzerki taldekoa izan zen. Donostiar batekin ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-094

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-17
- **Iraupena:** 99 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Amaran jolasean

- **Erref:** DON-094/004
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Amara nolakoa zen kontatzen du. Baserri batzuk eta urak hartutako eremuak zeuden. Inguru hartan ibiltzen ziren jolasean. Kanikekin, txibekin, txapekin, txabolak egiten aritzen ziren.

2. Hondartzako giroa

- **Erref:** DON-094/009
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:19:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzara eta kaiara asko joaten ziren jolasera, baita bainatzera ere. Txikitik etxekoekin eta nagusiagotan lagunekin joaten zen. Gizonezkoek kamiseta eraman beharra izaten zuten derrigorrez. Emakumeak oso estaliak ibiltzen ziren. Baineroak ezagutu ditu, laguntzaile aritzen zirenak. Toldoak oraingoan antzekoak ziren eta ordaindu egin behar ziren, eta arkupeetako toldo handiak doakoak ziren.

Transkripzioa

- Ta hondartzara-eta jungo ziñaten?
- Bai, noski!
- Umetan, ze jolas... ze egiten zenuten?
- Denetarik. Hondartzara ta kaiara ´re... kaiara ´re bai. Ta, bueno, igarian-ta egualdia txukun zeonian, bai, asko juten giñan. Ta futboleant jolastu ta palak,palak ta paletakin ta... Ta inguruko frontoietaa. Amara Zaharrian zeon... Bizikletan alde batetik bestera, ta horrelako gauzak!
- Hondartzan, norekin joaten zintaten hondartzara?
- Betiko lagunekin.
- Lagunekin? Eta amarekin-eta ez?
- A! Baita ere, baita ere. Gero, batez ere oporretan. Bueno, ya udaran... txikiyak... ez dakit zenbat urtera arte, oaindik kuadrillan lagunekin-ta antolatzen ez giñan bitartean bai, etxekoekin, amakin batez ere.
- Eta amak-eta hartzen zuen eguzkirik traje de bañuan ala jantzita egoten ziran?
- Ez, jartzen zuen, baiña ez zian oso eguzkizaliak, ez. Ta gu, bueno, eguzkia ez, guri gustatzen zitzaiguna da, ba, han ibili, jolastu, futbol... Ta gero, gero, bueno, ya pixkat koskorrak giñanian, lagunekin: futbol partidak eitera ta igari ta...
- Eta emakumiak-eta eguzkia hartzen egoten zian?
- Oso gutxi, ez oain bezela. Eta gogoratzen det, gure garaian, debekatuta zegon, bueno, baiñujantziyak izan behar zuten nahiko haundiyak. Eta ez emakumeentzat, gizonezkoek eraman bihar zuten kamiseta. Hola, manga gabeko kamiseta? Urte batzuetan. Gero hori, debeku hori, kendu zuten ta... Baiña... derrigorrezkoa.
- Eta norbait egoten zen hori kontrolatzen?
- Agindua hola zan ta bete iten zan. Ez dakit ba norbaitek ez bazun egiten...
- Multarik-eta jartzen zuten?
- Ez dakit. Pensatzen det baietz, baiña oso zorrotz ez zuten begiratuko. Baiña agindua hola zan ta... eske garai hartan agindu hoiak bete iten zian!
- Eta neskak gonakin?
- Bai! Baiñuako hola gonatxo batekin ta... bai, bai, oso estaliak.
- Eta zuk ezagutu duzu bañistarik edo baiñero...?
- Bai, bai, bai. Zeuden hondartzan, hola, makil batzuk, makillak soka luze batekin uretan sartzen zana, jendia han heltzeko, eta ya asko ez baiña nahi zutenak zeukaten baiñero bat laguntzeko, ba, persona helduei edo haurrai ´e bai.

- Eta igerian erakusten zuten ala ez? Bakarrik lagundu?
- Nik uste det babes bat ematen zutela o seguridadia gurasoei edo... Ez, haiek ez zian igari maisuak-edo ez, ez.
- Eta errez igartzen zan baiñerua zein zan?
- Bai, bai, bai, jantzi berezi bat... Ez det ondo gogoratzen, baiñan bai, jantzi berezi bat zuten.
- Eta toldoak-eta, oingoak bezelakoak ziran ala...?
- Berdintsuk. Bai, bai. Oain kendu in bihar dituztela-ta esaten ai diala entzun nun o nunbait irakurri det, 80 urte daramatela toldo hoiekin / tolduoyekin/ ta. Klaro, nik 80 urtekorik ez det ezagutzen, baiña nere garaian ere berdintsuk zian, bai.
- Eta zuk ezagutu duzu toldo haundi bat...?
- E... oain badao arkupia Kontxan? Arkupia buelta guztin. Arkupe horren kontra jartzen zituzten toldo... bestiak ordaindu in bihar zian eta jartzen zituzten haundi batzuk —ez dakit, ba, 1, 2, 3, 4 edo— han edozein jartzeko. Hua gratis zan, ta bai.
- Eta aukiekin edo zer?
- Nik uste det... aukiyak ez dakit ordaindu bihar zian edo ez edo. Onbre, toldo guztietan aukiyak zeuden. Oain, toldo haundi hoietan...
- Aulki asko itsasora begira, ala...?
- Bai, zeatik zan, arkupiak hemen baldin badaude, noski, itsasora begira.

3. Hondartzako aldagelak

- **Erref:** DON-094/010
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:19:23. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Kontxako arkupe osoan aldagelak zeuden, kabinak. Handik kanpo aldatzea debekatuta zegoen baina hala ere aldatzen ziren. Lagunekin joaten zenean mutil artean aritzen ziren.

4. Elizarekiko betebeharrak eta salbuespenak

- **Erref:** DON-094/011
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:20:49. **Bukatu:** 00:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Etxean arrosarioa errezatzen zela gogoratzen du. Erramu bedeinkatua ipintzen zuten balkoian, San Blas egunean ogia bedeinkatzen zen. Paskuetan, jaunartzean, papertxo bat uzten zen zure betebeharra egin zenuela adierazteko. Garizuman ere antzeko zerbait egiten zen.</p>

5. Jaunartzea berak bakarrik

- **Erref:** DON-094/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:26:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

Jaunartzea eskolan bertan egin zuen. Osaba jesuita zuenez, hura oporretan etorritakoan egin zuen jaunartzea, berak bakarrik. Gogoan geratu zaio hori. Etxean ospakizuna egiten zen senideekin.

6. Errege Egunean oparia

- **Erref:** DON-094/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:26:13. **Bukatu:** 00:27:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Errege Egunean oparia jasotzen zuten, jostailuren bat gehienetan. Txapazko trenak eta horrelakoak izaten zituzten. Egurrezko jostailu asko izaten zituzten.

7. Zineman pelikulak sailkatuta

- **Erref:** DON-094/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:30:49. **Bukatu:** 00:32:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zinemara sarri joaten ziren. Bellas Artesera joaten zen bera eta bi pezeta inguru ordaintzen zuten. Pelikulak sailkatuta egoten ziren. Nodoak ere ikusi behar izaten zituzten.

8. Ofiziala izatearren lotsa

- **Erref:** DON-094/018
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:33:51. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Unibertsitate ikasketak Bartzelonan egin zituenez, soldadutza Tarragonan egin zuen. Ofizial titulua lortu zuen eta praktikak Loiolako kuartelean egin zituen.

Anekdotak bat kontatzen du ordukoaz, apezpikuaren hiletan parte hartu behar izan zuen eta.

9. Euskarazko antzerki taldeko kide

- **Erref:** DON-094/020
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Antzerkian hasi zen, euskaraz kulturalki egin zitekeen gauza bakarretakoa zen eta. Ez ziren bereziki antzerkizaleak, euskararen egarri zeuden. Talde bat eratu zen Iñaki Behobide zuzendari zela.</p>

Transkripzioa

- Denbora librian antzerkia ere...

- Bai.

- Nolatan hasi ziñan?

- Nola hasi giñan? Ba ordun denok egiten genun bezela. Oso antzerkizalek ez giñan izango, baiño euskeraz egiteko zegoen aukera bakarretakoa bat, ba... zan. Gaiñea, ordun, euskeraren alde-edo zerbait egin nahi bazenun, ta euskeraz zan libre egin zenezakeen gauza bakarra kulturalki edo; politikoki ezer ez edo oso ezkutuan. Eta, bueno, ba, hoi zan. Hua zan... Eta ez gu bakarrik, antzerkiya egiten genunok. Ikustera zihoazt... ikusle guztik ere berdin. Haidi´re antzerki... bueno, ordu pare bat ondo pasa edo... Baiñon ordun bazegoen egarri bat euskaldun guztik gutxi gorabehera ni bezela: etxian-ta euskeraz iten zuten, kanpua ezer ez. Baldin bazuten lagun arte... ingurukoekin euskeraz egingo zun, baiño bestela ez zegoen aukerarik. Ta, ordun, bai guk, osea, antzezleek, eta bai ikusleek... ikusleek... ba, euskeraz zalako joaten giñan. Esan nahi det, hori berbera erderaz edo frantsesaz-edo izango balitz, ez giñake joango. E? Hoi da...

- Bai, bai. Eta zu nolatan hasi ziñan? Norbaiten bitartez ala...?

- Baaai, ordun talde bat antolatu zen, Iñaki Behobide zuzendari zela. Ta inguru hortan, bueno, ba, euskaldun batzuk hasi giñan ta... lan asko in genun, e. Bueno, asko... Bai, lan asko, bai, bai, bai. Ordun Donostiyan egiten zan bakarra zan uste det San Sebastianetan edo Santo Tomasetan e... aiuntamentuak bazun, udalak bazun "Escuela de arte y declamación" deitzen zioten... esaten ziotena. Bueno, euskerazko klasiak ematen zituzten leku bakarra uste det. Garai hartan leku bakarra. Eta hoiak antolatzen zuten... ordun Maria Dolores Agirre zan horko zuzendari ta antolatzen zun... hori. Ordun, gu hasi giñan, bueno, beste giro bat ematen, bueno, gazteak hua aldatu nahian ta berritu ta... Aldatu genun, ordun... nahiko aldatu genun... o aldatu ez genun aldatu, baiño hasi giñan antzertu beharrian beti hemen zueden obra eskax, eskax haiek -eskax numeron ta kalitate eta- itzulpenak egiten. Ta, ordun, ba, mundu guztiyan [aitzen dian] ba, orduan Ibsen ta Ionescu ta, bueno, horrelako... E? Tennessee Williams ta... Bua, hoi, euskeraz hoi egitia zan... puf! Eta borroka betiko... bueno... borroka politikoa-ta hor zeuden, ez?

10. `Jarrai´ antzerki taldea

- **Erref:** DON-094/021
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:44:23. **Bukatu:** 00:46:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Antzerki klubean sartu ziren eta nahikoa mugitu ziren. Herriz herri ere aritzen ziren. Antzezlanak beti euskaraz egiten zituzten. Jarrai zuen izena taldeak. Ensaioak Urbieta kaleko Aurrera tabernan egiten hasi ziren.</p>

11. Atzerriko antzerkien itzulpenak euskaraz

- **Erref:** DON-094/022
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:46:32. **Bukatu:** 00:48:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Antzezlanak itzultzeko lana Xabaldor Garmendiak eta beste hainbatek egiten zituzten. Baziren itzulita zueden lanak ere. Eszenatokiak egin eta ipini beraiek egiten zuten. Garai batean 15-20 emanaldi egiten zituzten urtean.

12. Antzerkiko taldekide ezagunak

- **Erref:** DON-094/023
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:48:43. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Karmele Esnal eta Ramon Saizarbitoria aritzen ziren taldean. Rikardo Arregi eta Gabriel Arestirekin bazuten harremana. 1960 inguruan sortu zen Jarrai antzerki taldea. Koldo Mitxelenak ere lokalen bat uzten zien Aldundian.</p>

13. Giro kultura eskasa

- **Erref:** DON-094/024
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:52:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Giro kulturala oso eskasa zen. Literatura eta musika aldetik aberastuz joan zen giroa. Antzezlanen testuak beti zentsuraren aurrean aurkeztu behar izaten zituzten baina ez zuten arazorik izan.

14. Antzerkiko taldekide ezagunak, Xabier Lete tarteko

- **Erref:** DON-094/025
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:52:33. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Xabier Lete, Arantxa Gurmendi eta Joxe Mari Aristi antzerki taldean aritzen ziren.

15. Erromeriara Donostiatik kanpora

- **Erref:** DON-094/026
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Hernani eta Errenteriara joaten ziren erromeriara, Donostiakoak leku itxietan egiten zituzten eta. Mendira ere asko joaten ziren. Igeldoko dantzalekuan begiralea izaten zen.

16. Erdal giroa nagusi

- **Erref:** DON-094/027
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:57:36. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Nagusitu eta gero sartu da bereziki euskal kulturaren, gaztetan etxeko giroa ez beste dena erdaraz baitzen. Euskaraz alfabetatu zen baina oinarri akademiko guztia erdarazkoa du.

17. Euskaraz alfabetatua

- **Erref:** DON-094/028
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:03:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Xalbador Garmendiarengandik asko ikasi zuen euskararen gramatikaz eta. Patxi Altuna, Paulo Iztueta izan zituen irakasle. Udalak langileak euskalduntzeko plangintzaren barruan alfabetatu zen Xabier, 60-70eko hamarkadan. Euskaltzaindiako euskara gaitasun titulua atera zuen.

18. Amarako Santiago sagardotegia

- **Erref:** DON-094/029
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:03:19. **Bukatu:** 01:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Sagardotegietara Astigarragara joaten ziren eta tabernetan Alde Zaharrean ibiltzen ziren. Merenderoetara ere joaten ziren askotan, janaria eta edaria etxetik eramanda. Amaran bazen Santiago izeneko baserri bat eta bolatokian eta tokan asko ibiltzen ziren. Bederatzi txirlorekin jolasten zuten.

19. Tokan eta bolotan

- **Erref:** DON-094/030
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:06:15. **Bukatu:** 01:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Toka jolasa nolakoa den kontatzen du. Bolotan egiteko egurrezko bola eta txirloak erabiltzen ziren. Gizonek bakarrik jolasten zuten hortan. Taberna giroan eta sagardotegian emakume kuadrillarik ez zen izaten. Kuadrilletan katurako zaletasuna bazegoen.

20. Gutun bitartez komunikatzen

- **Erref:** DON-094/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:11:50. **Bukatu:** 01:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Telefonorik ez zuten ume zela baina gerora bai. Gutun bitartez komunikatzen zen familiarekin, andregaiarekin eta lagunekin. Euskaraz idazten zituen.

21. Olioa kontserba latetan estraperloan

- **Erref:** DON-094/034
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:14:00. **Bukatu:** 01:16:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamendu libreta gogoan du. Dendara zer iritsiko zain egoten ziren. Jatekoa bazuten. Estraperloko gauza asko erosten ziren: ogi zuria, azukrea... Izeba-osaba getariarrak zituen eta haiek kontserba latetan olioa ekartzen zieten. Inguruko baserrietatik ere lortzen zuten jatekoa.

22. Izotz-saltzaileak

- **Erref:** DON-094/035
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:16:54. **Bukatu:** 01:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Esnea Zubieta eta Urnietako baserritarrei erosten zieten, etxeraino ekartzen zieten. Saskiak hartu eta plazara joaten zen ama egunero erosketak egitera, gehienetan San Martinera. Kamioietan izotza saltzen zuten pusketa handietan eta jairen bat bazen, erosi egiten zuten jaki-edariak kontserbatzeko.

23. Barkilleroak, piruleroak eta Amarako feria

- **Erref:** DON-094/036
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 01:19:34. **Bukatu:** 01:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Arrain-saltzaileak ezagutu ditu. Barkilleroak, piruleroak gogoan ditu. Piruleroek esaten zituzten esaldiak aipatzen ditu. Egunkari saltzaileek bereziki udaran kanpoko egunkariak saltzen zituzten. Amaran San Juanetan feria izaten zen eta han saltzaile xelebreak izaten ziren.

24. Zirko ikusgarria Amaran

- **Erref:** DON-094/037
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:22:40. **Bukatu:** 01:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Jai-giroa

- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Zirkoa etortzen zenean, zeharo ikusgarria iruditzen zitzaien. Aitona oso zirkozalea zen eta har eramaten zituen ikuskizunera. Berorika hitz egiten zioten. Duela gutxiko anekdota bat ere kontatzen du.

25. Serenoak, faroleroak eta zakurzainak

- **Erref:** DON-094/038
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:24:53. **Bukatu:** 01:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Serenoak kapa handiarekin, makilarekin eta giltza pila batekin kalean ibiltzen zen. Faroleroek gasezko farolak pizten zituzten. Kaleko zakur galduak jasotzen zituztenak ere baziren, uztai bat zuen makila batekin harrapatzen zituzten eta udal zakurtegira eraman.

26. Udako tranbia zuriak, jardinerak

- **Erref:** DON-094/039
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:26:27. **Bukatu:** 01:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Kale garbitzaileek egurrezko gurdi berde batzuekin ibiltzen ziren. Udar tranbia zuri batzuk ateratzen zituzten eta irekiak izaten ziren, "jardinerak" deitzen zieten.

27. Ikatz-saltzaileak, zapata konpontzaileak...

- **Erref:** DON-094/040
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:27:53. **Bukatu:** 01:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Kargako barku handiak kaira etortzen zirenean, ikustera joaten ziren umetan. Trena orduan kairaino iristen zen. Ikatz sailtzaileak ere izaten ziren. Taberna dotoreetan eta kaleko beste zeinbait txokotan izaten ziren zapata garbitzaileak. Zapata konpontzaileak etxe atarietan egoten ziren. Galtzerdi konpontzaileak ere izaten ziren.

28. Udatiarrak ikustera zezen plazara

- **Erref:** DON-094/041
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:30:25. **Bukatu:** 01:31:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

<p>Udatiarrak etortzen zirenean, giroa aldatu egiten zen. Kotxe gehiago egoten zen. Zezen plazara oso dotore joaten ziren udatiarrak eta jendea haiek ikustera joaten zen. Zalgurdiak ezagutu ditu baina gutxi.</p>

Transkripzioa

- Turista asko etortzen zan udan, ez? Madrildarrak eta zaragozarrak eta...
- Bai, bai.
- Eta giroa aldatu egiten zun horrek? Dotorego ikusten zan jendia?
- Baiña beste mundu bat zan, ez? Haiek bere erara ibiltzen zian ta, bueno, bazeuden donostiar batzuk beti, ba, haien inguruan ibiltzen zianak. Baiña... Bueno, asko aldatzen zan Aste Nagusian-ta, zezenetaa juateko jende guzti hori ibiltzen zan... Kotxe pilla ekartzen zuten. Ordun oso gutxi zeuden ta hoiek been kotxekin-ta etortzen zian. Ordun zezen-plaza, lehengo zezen-plaza... Bueno, oaingo...
- Txofrekon?
- Txofreko zezen-plazara, ba, bueno, hori zan espektakulo hutsa. Jendia juaten zan ikustea nola zezenetaa zijuaztenak nola zijuazten.
- Eta zuek ere juten zineten?
- Ni orduan gaztia nitzan, baiñan gogoratzen det, bai, bai, bai. Eta Parte Zaharrera. Jakin toteruak-edo zeudela ez dakit ze fondan edo ez dakit nun ta ia handik nola ateatzen zian ta.
- Ta zaldi-karrotan juten zian ala ya automobilletan?
- Automobilletan. Bai, bai, bai.
- Lehengo automobil...
- Bai, bai, bai. Nik zaldi-kotxiak ezagutu ditut Donostin, baiñon gutxi. Baiño oaindik bazeuden. Ni Amaran bizi izandu naiz ta han inguruan bazeuden zaldi-kotxe... jendian kotxe hoiek zituztenak, eta han, etxien bajuan, zaldiyak gordetzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com